

**6. ERANSKINA:
EGITURAREN BANAKETA**



Aurkibidea

1. Ikasketaren Helburua.....	3
2. Ezaugarri Orokorrak	4
3. Aparkalekuak.....	5
3.1. Aparkaleku arruntak.....	5
3.2. Elbarrituentzako aparkalekuak.....	6
4. Ibilgailuen zirkulazioa.....	6
4.1. Sarbideak	6
4.2. Aldapak	7
4.3. Zutabeak	7
5. Oinezkoentzako zirkulazioa	8
5.1. Sarbideak	8
5.2. Segurtasun bulegoa.....	8



1. Ikasketaren Helburua

Eranskin honen helburua, diseinatu egin den aparkalekuaren distribuzioa eta hainbat atalei buruzko informazioa ematea da. Horretarako, CTE-DB-SUA “Seguridad de Utilizacion y Accesibilidad” dokumentua erabili da eta agertzen diren zehaztasunak eta araudiak hartu dira kontuan.



2. Ezaugarri Orokorrak

Aurreko ataletan azaldu den moduan aparkalekuak 1760 m² -ko azalera izango du, 57 metroko luzera eta 31 metroko zabalera. Lur eremuari etekin handiagoa ateratzeko, bi solairu jartzea erabaki da, lehenengoa -1. Solairua, -3 metroko kotara kokatuta joango dena eta -2. Solairua, -6 metroko kotara. 0 metroko kotan, etorkizun batean, plaza bat egitea pentsatzen da.


Honenbestez, segurtasuna eta aurreko neurriak kontuan hartuz ibilgailu ororen dimentsio maximoak hurrengoak izango dira:

- Luzera 4,5 m
- Zabalera 2,4 m
- Altuera 2,20 m.


Halaber, ibilgailuen onartutako pisu maximoa 2500 kg izango da gehienez.

Ibilgailuentzako sarrera Euskal Herria kalean egongo da lekuratuta eta irteera, San Antonio Hiribidean. Oinezkoentzako sarrera eta irteerari begira, aparkalekuak 2 izango ditu, Marivi Iturbe kalean eta San Antonio Hiribidean lekuraturik egongo direnak. Halaber, igogailu bat eta bi eskailera nukleo izango ditu beheko solairuetara jaisteko, aurreko bi kale nagusietan kokatuta egongo direnak. Hauek 3 metroko sakonera izango dute, guztira 6 metro izanik.

1. eta 2. irudietan aparkalekuaren banaketa agertzen da, berriz, informazio gehiago nahi izanez gero, 6. eta 7. planoek zehaztasun gehiago izango dituzte.



**1.Irudia: -1. Solairuaren banaketa
(Iturria: AutoCAD)**




2.Irudia: -2. Solairuaren banaketa
(Iturria: AutoCAD)

3. Aparkalekuak

3.1. Aparkaleku arruntak

PGOU -aren arabera, "Se entiende por plaza de aparcamiento un espacio mínimo de 2,25 por 4,50 metros, con acceso libre suficiente". Parkinaren plaza arruntaren dimentsioak, hau da, elbarrituentzako ez direnak, 5 metroko luzera eta 2,5 metroko zabalera izango dute. Honetaz gain, aparkaleku eta zutabeen arteko tartea egotekotan, 0,1 metrokoa izango da alde batera eta 0,1 metroko beste aldera. 3. Irudian dimentsioak era grafiko batean ikusten dira:



3.Irudia: Aparkaleku arruntaren dimentsioak
(Iturria: AutoCAD)

Aparkaleku kopuruei dagokienez, eraikuntzak, 69 aparkaleku arrunt izango ditu, 30 lehenengo solairuan eta 39 bigarren solairuan.



3.2. Elbarrituentzako aparkalekuak

Eusko Jaurlaritzaren araudiak dioenez, aparkaleku edo estazionatzeko gune guztiek, plaza kopuru bat erreserbatuta izan behar dute pertsona elbarrituentzako. Kopuru hori, aparkaleku totalen %3 -ko portzentaiari dagokio, beraz, izan beharreko, kopuru minimoa hurrengo da:

$$75 \times \frac{3}{100} = 2,25 = 3 \text{ aparkaleku}$$

Kasu honetan, 6 aparkaleku erreserbatu dira, 3 lehenengo solairuan eta beste 3 bigarren solairuan, bakoitzak 5 metroko luzera eta 3,75 metroko zabalera izanik, 4. Irudian ikusten den moduan:



4.Irudia: Elbarrituentzako aparkalekuaren dimentsioak
(Iturria: AutoCAD)

Aparkaleku hauek, segurtasunari begira, eskaileko nukleotik eta igogailutik ahalik eta hurbilen kokatzea erabaki da. Gainera, beste gidari batzuek aparkaleku hauek okupatu ez dezaten, hauetan irudi bat egitea erabaki da, aurreko irudian ikusten den berdina.

4. Ibilgailuen zirkulazioa

4.1. Sarbideak

Lehen azaldu den moduan, aparkalekuak sarrera bat eta irteera bat izango ditu, hau da, era independentean funtzionatuko dute. Biak zoruaren kotan kokatuta egongo dira eta -1. Solairuarekin egongo dira konektatuta, lurrazpitik 3 metrotara.


Behin parkinean sartuta solairuetan zehar mugitu nahi izanez gero, aldeetan kokatuta dauden aldapak erabili beharko dira. Bata jaisteko erabiliko da eta bestea igotzeko.

Ibilgailuen zirkulazioa 20 Km/h baino handiagoa izatea debekatuta egongo da.




4.2. Aldapak

Irteerako eta Sarrerako aldapak berdinak dira, biek %10 -ko malda izango dute, aldiz, solairu batetik bestera pasatzeko aldapen maldak aurrekoekin konparatuz, desberdina izango dira, hauena %16 -koa izanik. 5. eta 6. Irudietan hauen dimentsioak ikusi daitezke:



**5.Irudia: Sarrera/Irteera aldapa
(Iturria: AutoCAD)**



**6.Irudia: Solairuen arteko aldapak
(Iturria: AutoCAD)**

4.3. Zutabeak

Gidariak ahalik eta erosotasun handiena izan dezaten, zutabeak jarri direnean, ahalik eta kopuru gutxien jartzen ahalegindu da, beti pertsonen segurtasuna zalantzan jarri gabe.

Zutabeen arteko distantzia maximoa 7,85 metrokoa izango da eta guztira, 74 zutabe jarri dira aparkaleku osoan zehar. Hauen banaketa ikusi nahi izanez gero, “19. Zutabeen banaketa ” planora ikusi.



5. Oinezkoentzako zirkulazioa

5.1. Sarbideak

Oinezkoek, aparkalekuan barrena, aparkalekuak osatzen duten perimetroaren kanpotik ibili ahal izango dira. Aparkalekuan hainbat zebra-pasabide egongo dira oinezkoei segurtasuna bermatzeko. Ibilbide eta zebra-pasabide hauek, 1,2 metroko zabalera izango dute.

Aurrekoarekin jarraituz, debekatuta egongo da oinezkoentzat tarte horietatik kanpo ibiltzea.

5.2. Segurtasun bulegoa

Eraikuntzak, segurtasun bulego bat izango du, -1. Solairuan kokatuta egongo dena.



7.Irudia: Bulegoa
(Iturria: AutoCAD)